

## Sexuan Oinarritutako Emakumeen Eskubideen Adierazpena

Sexuan oinarritutako emakumeen eskubideen berrespenaren inguruan, emakumeen integritate fisiko eta ugalketa-eskubideak barne, eta sexuaren kategoria "genero identitatea"renarekin ordezkatzeko eta amatasun "subrogatuak" eta harekin lotura duten praktikek ondorioztat dituzten emakume eta nesken aurkako diskriminazio ororen ezabaketaren inguruan.

### Sarrera

Adierazpen honek Emakumeen aurkako bereizketa mota guztiak ezabatzeko Konbentzioak, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1979ko Abenduaren 18an adoptatu zuena (CEDAW ingelesezko siglen arabera), onartzen dituen sexuan oinarritutako emakumeen eskubideak berresten ditu, harago garatuak CEDAWren Gomendio Orokorren Komitean, eta adoptatuak, inter alia, Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Nazio Batuen 1993ko Adierazpenean (UNDEVW).

CEDAWren 1. artikulua honela definitzen du emakumearen aurkako diskriminazioa:

"Sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea, politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan, emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarritzko askatasunak".

Sexua honela definitzen dute Nazio Batuek: "arrak eta emeak bereizten dituzten ezaugarri fisiko eta biologikoak" (Gender Equality Glossary, UN Women).

CEDAWk Estatu alderdiengan ondorengo betebeharrak ezartzen ditu: "Neurri egoki guztiak hartzea, baita legegintzazkoak ere, emakumearen aurkako bereizkeria gauzaten duten lege, erregelamendu, usadio eta eginerak aldarazi edo indargabetzeko" (2(f). artikulua); eta "esparru guztietan eta, bereziki, politika-, gizarte-, ekonomia- eta kultura-esparruetan, neurri egoki guztiak hartuko dituzte, baita legegintzazkoak ere, emakumearen erabateko garapena eta aurrerapena ziurtatzeko; horren xedea izango da emakumeak giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak egikaritzea eta izatea, gizonak egin ohi duen baldintza berberetan" (3. artikulua).

Giza eskubideen esparruan aspalditik ulertu da gizonen eta emakumeen sexu-rol estereotipatuak emakumearen menpekotasunaren funtsezko alde bat direla eta ezabatu egin behar direla.

CEDAWren 5. artikulua adierazten du,

"Estatu alderdiek neurri egoki guztiak hartuko dituzte, hurrengo helburuak lortzeko:

- (a) "Gizonen eta emakumeen jokabidearen inguruko gizarte- eta kultura-ereduak aldaraztea, sexuatarik edozein bestea baino gutxiago edo gehiago dela uste izanagatik edo gizonen eta emakumeen eginkizun estereotipatuak direla eta, izan daitezkeen aurreiritziak eta ohiturazko nahiz bestelako eginerak ezabatzeko asmoarekin".

Generoak honi egiten dio erreferentzia: "Garai jakin batean gizarte jakin batek gizonentzat eta emakumeentzat egokitzen dituen rola, portaerak, jarduerak eta atributuak (...) Atributu, aukera eta harreman horiek sozialki eraikiak dira, eta sozializazio prozesuaren bidez ikasiak" (Gender Equality Glossary, UN Women).

Nazio Batuen dokumentu, estrategia eta ekintzetan berriki izan diren aldaketek, "genero" hizkerak sexu kategoriaren erreferentziak ordezkatu dituztenak, lehenak sexu-rol estereotipatuei eta bigarrenak biologiari erreferentzia egiten dietenak, nahasmena sortu dute, zeinak, azken batean, arriskuan jartzen baitu emakumeen giza eskubideen babesa.

Sexuaren eta "generoa"ren arteko nahasteak sortzetiko "genero identitate"en ideia onarpena areagotzen lagundu, eta "identitate" horiek babesteko eskubidea sustatzera eramanez; eta horrek azken batean, emakumeen hamarkadetako lorpenen higadura ekarri du. Emakumeen eskubideak, sexuan oinarrituta lortu direnak, orain ahultzen ari dira nazioarteko dokumentuetan "genero identitatea" eta "sexu-orientazioak eta genero identitateak (SOGIES)" kontzeptuak sartu direlako.

Sexu orientazioaren gaineko eskubideak beharrezkoak dira sexu bereko pertsonak erakarrita sentitzen direnen aurkako diskriminazioa ezabatzeko. Sexu-orientazioarekin lotutako eskubideak bateragarriak dira sexuan oinarritutako emakumeen eskubideekin, eta beharrezkoak dira lesbianek, beste emakume batzueganako orientazio sexuala duten emakumeek, sexuan oinarritutako eskubideak osorik baliatu ahal izan ditzaten.

Hala ere, "genero identitatea"ren kontzeptuaren ondorioz, sozialki eraikitako estereotipoak, emakumeen menpekotasuna antolatu eta mantentzen dutenak, funtsezko eta sortzetiko baldintza bihurtzen dira, horrela, sexuan oinarritutako emakumeen eskubideak ahulduz.

Adibidez, Yogyakarta-ko Printzipioek zera adierazten dute:

"Genero identitatea generoaren barne-bizipenari eta bizipen indibidualari buruzkoa da, pertsona bakoitzak sakon sentitzen duena, eta jaiotzean esleitutako sexuarekin bat etor liteke edo ez, gorputzaren bizipen pertsonala barne (horrek gorputz-itxura edo -funtzionamenduaren aldaketa ekar lezake, medikuntzako, kirurgiako edo bestelako prozeduren bidez, betiere hura askatasunez hautatzen bada) eta beste genero adierazpen batzuk, janzkera, hizkera eta itxurakeria barne" (Yogyakarta-ko printzipioak: sexu-orientazioarekin eta genero identitatearekin lotuta, nazioarteko giza eskubideen legeriaren aplikazioari buruzko printzipioak, 2007ko martxoa).

Nahi bezala janzteko eta gure burua aurkezteko eskubidea bateragarria da sexuan oinarritutako emakumeen eskubideekin.

Hala ere, "genero identitatea"ren kontzeptuak zera ahalbidetu du: beren burua emakumeen "genero identitatea" duten gizonek adieraztea, legean, politikan eta praktikan, emakumeen kategoriako kide direla; baina kategoria hori sexuan oinarritzen da.

CEDAWren 35. Gomendio Orokorrak zera ezartzen du: "28. gomendio orokorrak, estatu alderdiek Konbentzioaren 2. artikulua araberaz dituzten funtsezko betebeharrak buruzkoak, eta 33. gomendio orokorrak, emakumeen justiziara eraginkortasunez jotzeari buruzkoak, baieztatzen dute emakumearen aurkako bereizkeria ezinbestean lotuta dagoela haren bizitzari eragiten dioten beste faktore batzuekin. Batzordearen jurisprudentzian nabarmentzen da horien artean egon daitekeela (...) lesbiana izatea" (II, 12).

"Genero identitatea" kontzeptua pertsonak haien orientazio sexuala sexuaren arabera, eta ez "genero identitatea"ren arabera, definitzeko eskubideari aurre egiteko erabiltzen da. Hala, emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonei lesbianen kategorian sartzen saiatzeko aukera ematen zaie, kategoria hori sexuan oinarritutako kategoria izanagatik. Horrek lesbianen sexuan oinarritutako eskubideak urratzen ditu, eta emakumeen aurkako diskriminazio modu bat da.

Emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizon batzuek legezko amaren kategorian sartzea bilatzen dute. CEDAWek amen eskubideak eta "amatasunaren garrantzi soziala" azpimarratzen ditu. Ama-emakumeen eskubideak emakumeek bakarrik haurdundu eta erditzeko duten gaitasunean oinarritzen dira. Emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak amen legezko kategorian sartzeak higatu egiten du amatasunak gizarlean duen garrantzia, eta ahuldu egiten ditu CEDAWek ezartzen dituen ama-eskubideak.

Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataformak (1995) honako hau ezartzen du:

"Emakume guztiak beren osasunaren alderdi guztiak, bereziki ugalkortasuna, kontrolatzeko duten eskubidea esplizituki aitortzea eta berrestea funtsezkoa da beren ahalduntzearen papera indartzeko" (Eranskina 1, 17).

Eskubide hori ahuldu egiten du amatasun "subrogatuaren" erabilerak, emakumeen ugalketa-gaitasuna ustiatzen eta merkantilizatzen baitu.

Emakumeen ugalketa-gaitasunaren esplotazioak eta merkantilizazioak gizonak haurdundu eta erditzea ahalbidetzeko helburua duen ikerketa medikoa ere sostengatzen du.

Emakumeen "genero identitatea" dutela baieztatzen duten gizonak emakumearen, lesbianaren edo amaren legezko kategorietan sartzeak kategoria horien esanahi osoa ezabatzeko mehatxua egiten du, emakume, lesbiana eta ama izatearen estatusen oinarri den errealitate biologikoa ukatzen baitu.

"Genero identitatea"ren kontzeptua sustatzen duten erakundeek desafiatu egiten dute emakumeek eta neskek beren burua sexuaren arabera definitzeko duten eskubidea, bai eta biltzeko eta antolatzeko duten eskubidea ere, sexu gisa dituzten interes komunetan oinarrituta. Horrek berekin dakar lesbianek beren sexu-orientazioa sexuaren arabera definitzeko duten eskubideari desafio egitea, "genero identitatea"ren arabera beharrean, eta beren sexu-orientazio komunaren arabera biltzeko eta antolatzeko duten eskubideari.

Herrialde askotan, estatu-erakundeak, erakunde publikoak eta erakunde pribatuak pertsonak "genero identitatea"n oinarrituta identifikatu eta aipatzera behartzen saiatzen ari dira, sexuaren orde. Garapen horiek emakumeen aurkako diskriminazio-moduak dira, eta emakumeek adierazpen-askatasunerako, sinesmen-askatasunerako eta biltzeko duten eskubideak ahultzen dituzte.

Emakumeen "genero identitatea" dutela aldarrikatzen duten gizonak emakumeentzat erreserbatutako aukerak eta babesak eskuratzeko baimena ematen ari zaie. Hori emakumeen aurkako diskriminazio-modu bat da, eta emakumeen segurtasunerako, duintasunerako eta berdintasunerako oinarritzko eskubideak arriskuan jartzen ditu.

CEDAWren 7. artikuluan, bizitza publikoan eta politikoan emakumeen aurkako diskriminazioa ezabatzeko neurrien garrantzia berresten da, eta 4. artikuluan, berriz, aldi baterako neurri berezien garrantzia baieztatzen da, gizonen eta emakumeen arteko de facto berdintasuna bizkortzeko. Emakumeen "genero identitatea" aldarrikatzen duten gizonak emakumeen partaidetza-kuotetan eta bizitza publikoan eta politikoan emakumeen parte-hartzea areagotzeko diseinatutako beste neurri berezi batzuetan onartzen direnean, emakumeen berdintasuna lortzeko neurri berezi horien helburua ahuldu egiten da.

CEDAWren 10. artikuluko (g) atalean, Estatu alderdiei dei egiten zaie emakumeek kiroletan eta gorputz-hezkuntzan modu aktiboan parte hartzeko gizonen aukera berberak dituztela bermatzera. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun fisiologikoak direla eta, emakumeek eskubide hori baliatzeko beharrezkoa da kirol-jarduera jakin batzuk sexu bakarrekoak izatea. Emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak emakumeen kirol-jarduera eskusiboetan parte hartzeko baimena dutenean, emakumeak lehiarako desabantaila bidegabean daude eta lesio fisikoak izateko arrisku handiagoa izan dezakete. Horrek emakumeek eta neskek kiroletan parte hartzeko gizonak dituzten aukera berberak izateko duten eskubidea urratzen du, eta, beraz, emakumeen eta nesken aurkako diskriminazio-modu bat da, eta ezabatu egin behar da.

Giza eskubideen esparruan, aspalditik ulertu da emakumeen eta nesken aurkako indarkeria unibertsalki endemikoa eta funtsezko gizarte-mekanismoetako bat dela, zeinaren bidez emakumeei gizonekiko mendetasun-posizioa ezartzen baitzaie.

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Nazio Batuen Adierazpenak honako hau aitortzen du:

"Emakumearen aurkako indarkeria, historian zehar, gizonaren eta emakumearen artean ezberdinak izan diren botere harremanen adierazpena dela, eta horiek ekarri dutela emakumea menpean egotea eta gizonaren aldetiko diskriminazioa izatea, era berean, haren aurrerabidea eragotziz, eta orobat, emakumearen aurkako indarkeria gizartearen oinarrizko tresna dela, horren bitartez emakumea behartu egiten dela gizonarekiko mendekotasun egoera horretara".

Dominazio eta diskriminazio horiek sexuan oinarrituta daude, eta ez "genero identitatea"n.

Sexu kategoria "genero identitate" kategoriarekin uztartzeak emakumeek eta neskek gizon eta mutilen eskutik pairatzen duten indarkeriarengandik duten babesza zailtzen du. Emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak gero eta gehiago ahalbidetzen zaie mistoak ez diren sexu biktima izandako emakumeentzako laguntza-zerbitzu eta -espazioetarako sarbidea, zerbitzuen erabiltzaile zein hornitzaile gisa. Horrek barne hartzen ditu indarkeria jasan duten emakumeentzako eta neskentzako arreta berezi ez-mistoak, hala nola harrera-etxeak eta osasun-laguntzako zentroak. Beste zerbitzu batzuk ere sartzen dira, non sexu bakar batentzako arreta ez-mistoa funtsezkoa den emakumeen eta nesken segurtasun fisikoa, osasuna, pribatutasuna eta duintasuna sustatzeko. Emakumeentzako gune eta zerbitzu eskusiboetan gizonen presentziak zerbitzu horien rola ahultzen du emakumeen eta nesken babesari dagokionez, eta emakume eta neskek emakumeen "genero identitatea" dutela baieztatzen duten gizon bortitzen indarkeriarekiko zaugarri bihurtu ditzake.

CEDAWk bere 35. Gomendio Orokorrean, emakumeen aurkako indarkeria-mota desberdinen prebalentziari buruzko datuak eta estatistikak biltzearen garrantzia azpimarratzen du, indarkeria hori saihesteko eta konpontzeko neurri eraginkorrak garatzeari begira.

"Sexuaren arabera bereizitako datuak sexuaren araberako sailkapen gurutzatua aplikatzen zaien datuak dira, eta, horrela, informazio bereizita aurkezten dute gizonentzat eta emakumeentzat, neska eta mutilentzat. Sexuaren arabera bereizitako datuek rola, egoera errealak eta emakume eta gizonen eta neska eta mutilen baldintza orokorrak islatzen dituzte gizartearen alderdi bakoitzean. (...) Datuak sexuaren arabera bereizita ez daudenean, zailagoa da desberdintasun errealak eta potentzialak identifikatzea" (UN Women, Gender Equality Glossary).

Sexua "genero identitatea"rekin uztartzeak emakumeen eta nesken aurkako indarkeriari buruzko datu oker eta nahasgarriak biltzera garamatza, indarkeriaren egileak sexuaren orde, "genero

identitatea"ren arabera identifikatzen baititu. Horrek eragozpen handia sortzen du emakumeen eta nesken aurkako indarkeria desagerrarazteko lege, politika, estrategia eta ekintza eraginkorrak garatzeko.

"Genero identitatea" kontzeptua gero eta gehiago erabiltzen da sexu-estereotipoekin bat ez datozen edo genero-disforiarekin diagnostikatzen diren umeei "generoa berresleitzeko". Haurraren osasun fisikoan edo psikologikoan epe luzera ondorio kaltegarriak izateko arrisku handia dakarten esku-hartze medikoak erabiltzen dira, garapen maila dela-eta erabateko adostasun aske eta informatua emateko gai ez direnengan, hala nola pubertaroa zapaltzeko hormonon erabilera, tratamendu hormonal gurutzatua eta kirurgia. Esku-hartze mediko horiek ondorio kaltegarri iraunkorrak eragin ditzakete osasun fisikoan, antzutasuna barne, baita osasun psikologikoan ere.

## **Hitzaurrea**

Emakumeen eta gizonen eskubide-berdintasunarekiko eta sortzetiko giza duintasunarekiko konpromisoa gogoan izanez, Nazio Batuen Gutunean, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta giza eskubideen nazioarteko beste tresna batzuetan jasotako beste helburu eta printzipio batzuekin batera, bereziki Emakumearen aurkako diskriminazio-modu guztiak ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW) eta Nazio Batuen Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa, eta baita ondorengoak ere: Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteari buruzko Adierazpena, Garapenerako Eskubideari buruzko Nazio Batuen Adierazpena, Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpena, Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta haren kontra borrokatzeko Hitzarmena (Istanbulgo Konbentzioa), Giza Eskubideei eta Herriei buruzko Afrikako Gutunaren Protokoloa (Maputoko Protokoloa) eta Emakumeen aurkako indarkeria Prebenitu, Zigortu eta Desagerrarazteko Amerika arteko Konbentzioa (Belem do Konbentzioa).

Emakumeen eta nesken giza eskubideen erabateko ezarpena bermatzeko konpromisoa berretsiz, giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztien zati besterenduezin, integral eta zatiezina giza.

Nazio Batuen aurreko konferentzietan eta goi-bileretan lortutako adostasuna eta aurrerapenak aitortuz, horien artean Mexiko Hiriko Emakumearen Nazioarteko Urtea (1975), Kopenhageko Emakumeen Hamarkada (1980), Nairobiko Emakumearen Hamarkada (1985), New Yorkeko Haurrentzako Mundu Goi-bilera (1980), Rio de Janeiroko Ingurugiroaren eta Garapenaren Goi-bilera (1992), Vienako Giza Eskubideen Mundu Biltzarra (1993), Kairoko Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia (1994), Kopenhageko Gizarte Garapenari buruzko Mundu Goi-bilera (1995) eta Beijingeko Emakumeari buruzko Munduko Konferentzia (1995), berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko helburuz.

Aitortuz Nazio Batuen giza eskubideen ikuspegiaren lehen hamarkadetan argi eta garbi ulertu zela emakumeen aurkako diskriminazioa sexuan oinarritzen zela.

Nazio Batuen giza eskubideen inguruko akordioek, politikek, estrategiek, ekintzek eta dokumentuek sexu rol estereotipoak, egun "genero estereotipoak" izenez ezagunagoak, emakumeentzat eta neskentzat kaltegarriak direla onartzen dituztela kontuan hartuz.

Sexu-rolen estereotipoen kontzeptu argia genero hizkeraren erabileraren bidez nahastu dela onartuz.

"Genero identitatea"ren kontzeptua giza eskubideei buruzko nazioarteko dokumentu askotan sartu delako kezkatuta, itzal handikoak izanagatik ez lotesleak direnak.

Kontuan hartuta "generoa"ren hizkuntzaren erabilerak, sexuaren ordez, "genero identitatea"ren kontzeptua garatzea ahalbidetu duela, eta kontzeptu horretan sexu-estereotipoak sortzetikoak eta funtsezkoak balira bezala ulertarazten direla, zeinak emakumeen eta nesken giza eskubideen aurrerapenen higaduraren oinarria sortu baitu.

Kezkatuta, emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonen legeetan, politiketan eta praktikan emakumeen kategoriako kide direla diotelako, eta horrek emakumeen giza eskubideen higadura eragiten duelako.

Kezkatuta, emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonen legeetan, politiketan eta praktikan sexu-orientazioa sexuaren ordez "genero identitatea"n oinarritzen dela baieztatu, eta lesbiana kategorian sartzea bilatzen dutelako; eta horrek lesbianen giza eskubideen higadura eragiten duelako.

Kezkatuta, emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonen legeetan, politiketan eta praktikan ama kategorian sartu behar direla baieztatzen dutelako, eta inklusio horrek amatasunak gizartean duen garrantzia higatu, eta amen eskubideak ahultzen dituelako.

Kezkatuta, emakumeen ugaltzeko gaitasunaren esplotazio eta merkantilizazioak sostengatzen duelako amatasun "subrogatua".

Kezkatuta, emakumeen ugaltzeko gaitasunaren ustiaketak eta merkantilizazioak sostengatzen dituztelako gizonen haurdunaldia eta erditzea ahalbidetzera bideratutako ikerketa medikoak.

Kezkatuta, "genero identitatea"ren kontzeptua sustatzen duten erakundeek "genero identitatea"ri buruzko iritziak izateko eta adierazteko eskubidea mugatzen saiatzen direlako, estatuko organismoen, organismo publikoen eta erakunde pribatuen zigorrak erabiltzeko ahaleginak sustatuz, pertsonak sexuaren ordez, "genero identitatea"n oinarrituta identifika ditzaten.

Kezkatuta, "genero identitatea" kontzeptua emakumeek eta neskek beren sexuaren arabera emakume eta neska gisa elkartzeko duten eskubidea ahultzeko erabiltzen delako, emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak barne hartu behar izan gabe.

Kezkatuta, "genero identitatea" lesbianek beren sexu-orientazioa sexuaren arabera definitzeko duten eskubidea ahultzeko erabiltzen delako, bai eta beren sexu-orientazio komunaren arabera elkartzeko duten eskubidea ere, emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak gabe.

Kezkatuta, emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak emakumeentzat gordetako lehiaketa eta sarietan sartzen direlako, kirol eta beketan barne, zeina emakumeen eta nesken aurkako diskriminazioa baita.

Kezkatuta, sexua eta "genero identitatea"ren uztartzeak data oker eta engainagarriak jasotzera garamatzalako, legeak, politika publikoak eta enpleguarekin, soldata-berdintasunarekin, parte-hartze politikoarekin eta estatuko funtsen banaketarekin lotutako ekintzak planifikatzean erabiltzen direnak; besteak beste, emakumeen eta nesken aurkako diskriminazio-mota guztiak ezabatzeko eta emakumeek eta neskatoek gizartean aurrera egin dezaten sustatzeko neurri eraginkorrak oztopatuz.

Kezkatuta, politika publiko, gobernu, erakunde publiko eta erakunde pribatuek "genero identitatea"ren kontzeptua emakumeentzat soilik bideratutako zerbitzuak arriskuan jartzeko eran erabiltzen dutelako, biktimentzako laguntza eta arreta medikoko zerbitzu eskusiboak barne.

Kezkatuta, "genero identitatea"ren kontzeptua emakumeen segurtasuna, pribatutasuna eta duintasuna babesteko eta indarkeriaren biktima izan diren emakumeei eta neskei laguntzeko emakumeentzat gordetako espazioetan gizonak eta mutilak sartzea justifikatzeko erabiltzen delako.

Kezkatuta, sexua eta "genero identitatea"ren nahasteak emakumeen eta nesken aurkako indarkeriari buruzko datu oker eta engainagarriak erregistratzera garamatzalako, eta horrek zaildu egiten duelako indarkeria hori ezabatzeko neurri eraginkorrak garatzea.

Kezkatuta, "genero identitatea" kontzeptua erabiltzen delako sexu-delitu espezifikoak egiten dituztenen sexua ezkutatzeko, hala nola bortxaketa, eta horrek oztopatu egiten dituelako delitu horiek murrizteko neurri eraginkorrak.

Kezkatuta, emakumeentzako eta neskeentzako ekintza, estrategia eta politika espezifikoak ezabatzearen ondorioz, Nazio Batuen hamarkadetako lana ahulduko delako, zeinak emakumeentzako zerbitzu eskusiboen garrantzia aitortzen baitu errefuxiatu-esparru eta espetxeetan, eta instalazio mistoak erabiltzeak emakumeen eta nesken segurtasuna, duintasuna eta babesa mehatxatzen dituen beste edozein testuingurutan, bereziki emakume eta neska zaurgarriena.

Azpimarratuz, "genero identitatea"ren kontzeptua postmodernitatearen gorputz teorikotik eta "queer teoria"tik abiatuta garatu zela berariaz mendebaldean, eta nazioarteko erakunde boteretsuen bidez zabaltzen ari dela, baita "genero" terminoa tokiko hizkuntzetan existitzen ez den eta erraz ulertzen ez den herrialdeetan ere.

Aitortuz Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak ezartzen duela, Konbentzioaren ondorioetarako, haur bat 18 urtetik beherako gizaki oro dela; eta Haurren Eskubideen Aldarrikapenak, 1959koak, honako hau ezartzen duela:

"Haurrak, heldutasun fisiko eta mentalik ez duenez, babes eta zaintza bereziak behar ditu, baita legezko babesa ere".

Aitortuz, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak (3. artikuluan) baieztatzen duela, hurrei buruzko ekintza guztietan, haurren interes gorena funtsezko kontsiderazioa izango dela.

Kontuan hartuta "genero identitatea"ren kontzeptua gero eta gehiago erabiltzen dela sexu-rolen estereotipoekin bat ez datozen edo genero-disforiarekin diagnostikatzen diren haurrak "berresleitzeko", eta esku-hartze medikoek haurren osasun fisiko eta psikologikoan ondorio kaltegarriak izateko arrisku handia dakartela, hala nola pubertaroa zapaltzeko hormonak erabiltzea, eta hormonak ordeztea. Haurra ez da gai ondorio kaltegarri iraunkorrak (antzuasuna barne) eragin ditzaketen esku-hartze horiei buruzko adostasun oso, aske eta informatua emateko. Aitortuz pubertaroa zapaltzeko hormonak erabilera, hormonak ordezkapena eta haurren kirurgia azaleratzen ari diren praktika kaltegarriak direla, Emakumearen aurkako diskriminazio-modu guztiak ezabatzeari buruzko Batzordearen 31.a eta Haurren Eskubideen Batzordeak praktika kaltegarriak buruz egindako 18.a biltzen dituen Gomendio Orokor Batuaren V. zatian definitzen diren bezala.

Kontuan hartuta pubertaroa zapaltzeko hormonak erabiltzeak, hormonak ordezteak eta kirurgiak praktika kaltegarriak zehazteko lau irizpide betetzen dituztela:

a) Haurraren duintasunaren edo osotasunaren ukazioa eta bi hitzarmenetan jasotako giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketa dira; izan ere, haurraren osasun fisikoan eta psikologian epe luzera ondorio kaltegarriak izateko arrisku handiak dakartzaten esku-hartze medikoak barne hartzen baititu, eta haurra ez da gai esku-hartze horiei buruzko adostasun oso, aske eta informatua emateko.

b) Emakumeen eta haurren aurkako diskriminazioa dakarte eta kaltegarriak dira, pertsona edo talde gisa hartzaileentzat ondorio negatiboak dakartzaten neurrian: kalte fisikoak, psikologikoak, ekonomikoak eta sozialak barne, eta baita indarkeria eta gizartean erabat parte hartzeko eta haien potentzial osoa garatzeko duten gaitasunari mugak ezartzea ere;

c) Sexu maskulinoaren nagusitasuna eta emakumeen eta haurren menpekotasuna iraunarazten duten arau sozialek ezarritako eta mantendutako praktikak dira, tradizionalak zein azaleratzen edo berriz sortzen ari direnak, sexua, generoa, adina eta elkarri lotutako beste faktore batzuk direla medio eta "genero identitate"tik eratorzen direnak, zeina sexuen rol estereotipatuetan oinarritzen baita.

d) Emakumeei eta haurrei familiakoek, komunitateko kideek edo, oro har, gizarteak ezartzen dizkie praktika horiek, biktimak baimen osoa, askea eta informatua ematen duen edo eman dezakeen kontutan izan gabe.

Kezkatuta, nazioarteko dokumentu ez-lotesle batzuek adierazten dutelako haurrek berezko "genero identitatea" dutela, eta UNCRCen 8. artikulua pean babestu behar dela, identitate nazionala bezala, haurraren giza eskubideen kontu gisa. Adierazpen hori haurrak "transgeneroak" jaiotzen direlako baieztapenean oinarritzen da, eta horren ebidentzia zientifiko objektiborik ez dago.

## **1. Artikulua**

### **Emakumeen eskubideak sexu kategorian oinarrituta daudela berretsiz**

Estatuek sexu kategoriaren funtsezko garrantziari eutsi behar diote, eta ez "genero identitatea"ri, emakumeek eta neskek diskriminaziorik gabe egoteko duten eskubideari dagokionez.

a) "Konbentzio honen ondoreetarako, "emakumearen aurkako bereizkeria" esamoldeak agertuko du sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea, politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan, emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarrizko askatasunak" (CEDAW, 1. artikulua).

Legearen, politika publikoen eta praktikaren aurrean emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak emakumeen kategorian sartzeak emakumeen aurkako diskriminazioa dakarrela ulertu behar dute estatuek, emakumeen sexuagatiko giza eskubideen aitortpena kaltetzen baitu. Estatuek ulertu behar dute emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak emakumeen kategorian sartzeak emakumeen aurkako diskriminazioa dakarrela, lesbianen sexuan oinarritutako giza eskubideen aintzatespena kaltetzen baitu.

b) "Estatu alderdiek esparru guztietan eta, bereziki, politika-, gizarte-, ekonomia- eta kultura-esparruetan, neurri egoki guztiak hartuko dituzte, baita legegintzazkoak ere, emakumearen erabateko garapena eta aurrerapena ziurtatzeko; horren xedea izango da emakumeak giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak egikaritzea eta izatea, gizonak egin ohi duen baldintza berberetan" (CEDAW, 3. artikulua).



Horrek barne hartu beharko luke legean, politikan eta praktikan emakume kategoriak gizaki eme helduaren adierazpena gordetzea, lesbiana kategoriak beste gizaki eme heldu batzuekiko sexu-orientazioa duen gizaki eme helduarena, eta ama kategoriak guraso emearena; eta kategoria horietatik emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonen bazterketa.

c) "Estatu alderdiek emakumearen aurkako bereizkeria kondenatzen dute, horren mota edozein dela; orobat, adostu dute emakumearen aurkako bereizkeria ezabatzekeko politika egitea, atzerapenik gabe, egoki diren bide guztiak erabilita" (CEDAW, 2. artikulua).

Horrek barne hartu beharko luke emakumeen aurkako diskriminazioaren ekintzak eta praktikak ezabatzea, emakumeen kategorian emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak sartzea barne. Inklusio horrek emakumeen segurtasunerako, duintasunerako eta berdintasunerako eskubideak higatzen ditu.

d) Estatuak bermatu behar dute "emakume" eta "neska" hitzak eta tradizioz emakumeen gorputzeko zatiei erreferentzia egiteko erabili izan diren terminoak eta sexuan oinarritutako gorputz-funtzioak konstituzio-legeetan, legerian, zerbitzu-horniduran eta dokumentu politikoetan erabiltzen direnak izaten jarraituko dutela, sexu femeninoko pertsona bati buruzkoak direnean. "Emakume" hitzaren esanahia ez litzateke aldatu behar gizonak barnebiltzeko.

## **2. Artikulua**

### **Amatasunaren izaera berretsiz, emakumeen baldintza eskusibo gisa**

a) CEDAWek "amatasunaren garrantzi soziala" azpimarratzen du, eta 12. artikulua (2) honako hau dio: "Estatu alderdiek emakumeari zerbitzu egokiak bermatuko dizkiote haurdunaldiari, erditzeari eta erditzearen ondorengo aldiari dagokienez".

b) Amaren eskubideak eta zerbitzuak emakumeek bakarrik dituzten haurdunaldirako eta erditzeko duten gaitasunean oinarritzen dira. Gizonak eta emakumeak bereizten dituzten ezaugarri fisiko eta biologikoen ondorioz, emakumeen ugalketa-gaitasuna ezin dute partekatu emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak. Estatuak ulertu behar dute emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak amaren kategoria legalean sartzea lege, politika publiko eta praktiketan, eta era berean, gizonen "genero identitatea" dutela dioten emakumeak aitarenean, emakumeen aurkako diskriminazioa dela, emakumeena bakarrik diren ama egoera eta amaren sexuan oinarritutako eskubideak ezabatzen saiatzen direlako.

c) Estatuak bermatu behar dute "ama" hitza eta sexuan oinarritutako gorputz-funtzioei erreferentzia egiteko tradizioz erabili izan diren beste termino batzuk konstituzio-egintzetan, legerian, ama-zerbitzuak ematean eta dokumentu politikoetan oraindik ere erabiltzen direla, amei eta amatasunari erreferentzia egiten zaienean. "Ama" hitzaren esanahia ez litzateke aldatu behar gizonak barnebiltzeko.

## **3. Artikulua**

### **Emakumeek eta neskek osotasun fisiko eta ugalketarako dituzten eskubideak berretsiz**

a) Estatuak bermatu behar dute emakumeen eta nesken ugalketa-eskubide guztiak errespetatzen direla, eta ugalketa-zerbitzu integralak oztoporik gabe eskuratzen direla.

b) Estatuiek onartu behar dute praktika kaltegarriak, hala nola behartutako haurdunaldiak eta amatasun "subrogatuan" inplikaturako emakumeen ugalketa-gaitasunen ustiapen komertziala edo altruista, nesken eta emakumeen osotasun fisikoaren eta ugalketaren urraketak direla, eta ezabatu egin behar direla sexuan oinarritutako diskriminazio-modu gisa.

c) Estatuiek onartu behar dute gizonen ernatzea eta erditzea ahalbidetzea helburu duen ikerketa medikoa nesken eta emakumeen osotasun fisikoaren eta ugalketaren urraketa dela, eta sexuan oinarritutako diskriminazio-modu gisa ezabatu behar dela.

#### **4. Artikulua**

##### **Emakumeen iritzi eta adierazpen askatasunerako eskubideak berretsiz**

a) Estatuiek bermatu behar dute emakumeak ezin izango direla "beren iritziengatik molestatu" (ICCPR 19. artikulua (1)). Horrek barne hartu beharko luke "genero identitatea"ri buruzko iritziak mantentzeko eta adierazteko eskubidea, jazarri, auzipetu edo zigortuak izan gabe.

b) Estatuiek emakumeek adierazpen-askatasunerako duten eskubidea defendatu behar dute, baita "era guztietako informazioak eta ideiak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko duten eskubidea ere, mugak kontuan hartu gabe, ahoz, idatziz, inprimatuta edo artistikoki, edo haien hautatutako beste edozein prozeduraren bidez" (ICCPR, 19. artikulua (2)). Horrek barne hartu beharko luke "genero identitatea"ri buruzko ideiak komunikatzeko askatasuna, jazarri, auzipetu edo zigortuak izan gabe.

c) Estatuiek defendatu behar dute, testuinguru guztietan, besteak haien sexuan oinarrituta deskribatzeko dugun eskubidea, "genero identitatea"n beharrean. Estatuiek onartu behar dute Estatuako organismoek, organismo publikoek eta erakunde pribatuak pertsonak sexuaren ordeztu "genero identitatea"rekin lotutako terminoak erabiltzera behartzeko egiten dituzten saiakerak emakumeen aurkako diskriminazio modu bat direla, eta neurriak hartu behar dituzte diskriminazio modu hori desagerrarazteko.

d) Sexuaren ordeztu "genero identitatea" oinarri hartuta beste batzuk identifikatzera behartzeko saiakeren aurre egiten dieten pertsonak jazarri, epaitu eta zigortzeko edozein era debekatu beharko lukete Estatuak.

#### **5. Artikulua**

##### **Emakumeek elkartzeko eta bilera baketsuak egiteko duten eskubidea berretsiz**

Emakumeen bilera baketsuetarako eskubidea eta elkartzeko askatasuna defendatu behar dituzte estatuak (ICCPR, 21. eta 22. artikulua). Horren barruan sartu behar dira emakumeek eta neskek beren sexuaren arabera emakume edo neska gisa bildu eta elkartzeko duten eskubidea, eta lesbianek beren sexu-orientazio komunean oinarrituta biltzeko eta elkartzeko duten eskubidea, emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak barne hartu gabe.

#### **6. Artikulua**

##### **Sexuan oinarrituta emakumeek politikan parte hartzeko dituzten eskubideak berretsiz**

a) "Estatu alderdiek neurri egoki guztiak hartuko dituzte, emakumearen aurkako bereizkeria ezabatzeko, herrialde bakoitzeko bizitza politiko eta publikoan" (CEDAW, 7. artikulua).

Horrek emakumeen aurkako diskriminazio-modu gisa barnebildu beharko luke emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak emakumeen kategorian sartzea. Emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak ezin dira emakumeen ondorengo eskubideak hobetzeko neurrietan sartu, emakumeen aurkako diskriminazioa delako: boto eskubidea, hauteskundeetarako hautagai izatekoa, gobernu-politiken formulazio eta inplementazioetan parte-hartzekoa, funtzio publiko guztiak betetzeko, eta gobernuz kanpoko erakundeetan eta bizitza publiko eta politikoarekin lotutako elkarteetan parte-hartzekoa.

b) Estatuak bermatu behar dute "aldi baterako neurri bereziak hartzea, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasun de facto azkartzeko" (CEDAW 4. artikulua), soilik sexu femeninoko pertsonari aplikatzen zaizkiela, eta ez dituztela emakumeak diskriminatuko emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak barne hartuz.

## **7. Artikulua**

### **Kiroletan eta gorputz-hezkuntzan aktiboki parte hartzeko gizonen aukera berberak izateko emakumeen eskubideak berretsiz**

CEDAWren 10. artikulua (g) estatu alderdiek "Kirola eta hezkuntza fisikoa modu aktiboan egiteko aukera berberak" bermatu behar dituztela adierazten du, bai emakume eta neskenentzat, bai gizon eta mutilentzat. Horrek barnean hartu beharko luke sexuaren arabera, neska eta emakumeek kirolean eta gorputz-hezkuntzan parte har dezaten aukera ematea. Emakume eta neskenentzako inpartzialtasuna eta segurtasuna bermatzeko, emakumeen "genero identitatea" dutela dioten mutil eta gizonen sarrera, besteak beste, emakumeentzat gordetako ekipo, lehiaketa, instalazio edo aldageletan, sexu-bereizkeria modu gisa debekatu behar da.

## **8. Artikulua**

### **Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko beharra berretsiz**

a) Estatuak zera egin behar dute: "ahaleginak egin, ahalik eta gehien bermatzeko, indarkeria jasan duten emakumeek eta, ala behar denean, euren seme-alabek, espezializatutako laguntza izan dezaten, esaterako, birgaikuntza-zerbitzuak, haurren zaintza eta mantentzeko laguntza, sendabidea, aholkularitza, zerbitzuak, hornikuntzak eta gizarte- eta osasun-programak, eta baita laguntza-egiturak ere; eta, halaber, euren segurtasuna eta birgaikuntza fisiko eta psikologikoa sustatzeko neurri egoki guztiak hartzea, betiere estatuak dituzten baliabideen arabera eta, beharrezkoa denean, nazioarteko lankidetzaren esparruan" (UNDEVW, 3. artikulua (g)).

Neurri horien artean sexu bakar batentzako zerbitzuak eta emakumei eta neskei segurtasuna, pribatutasuna eta duintasuna emango dizkieten espazio fisikoak egon behar dira. Erakunde publiko nahiz pribatuak emandakoak izan, sexu bakar baterako xedapen horiek sexuaren arabera esleitu behar dira, eta ez "genero identitatea"ren arabera; eta emakumeek osatu beharko lituzkete sexuaren arabera, eta ez "genero identitatea"ren arabera.

b) Sexu bakar baterako prestazioan, besteak beste, indarkeriaren biktima diren emakume eta neskenentzako zerbitzu espezializatuak jaso behar dira, hala nola bortxaketa-kasuetan laguntzeko zerbitzuak, osasun-zentro espezializatuak, polizia-ikerketako zentro espezializatuak eta etxeko abusutik edo beste indarkeria batetik ihes egiten duten emakumeentzako eta haurrentzako

babeslekuak. Sexu bakar baterako xedapenek emakumeen eta nesken segurtasun fisikoa, pribatutasuna eta duintasuna sustatzen dituzten gainerako zerbitzu guztiak ere jaso behar ditu. Horien artean daude kartzelak, osasun-zerbitzuak eta ospitale-gelak, errehabilitazio-zentroak substantzien gehiegikeriagatik, etxerik gabeko pertsonentzako ostatua, komunak, dutxak eta aldagelak, eta pertsonak bizi diren edo biluzik egon daitezkeen beste edozein espazio itxi. Emakumeen eta nesken premiak asetzeko diseinatutako sexu bakarreko instalazioek gizonen eta mutilei eskaintzen zaizkien erabilgarritasunari eta kalitateari dagokienez, gutxienez berdinak izan behar dute. Instalazio horietan ez dira sartu behar emakumeen "genero identitatea" dutela dioten gizonak.

c) Estatuak zera egin behar dute: "Ikerketa sustatzea, datuak jasotzea eta estatistikak biltzea, bereziki, etxeko indarkeriari buruzkoak, emakumearen aurkako indarkeria modu ezberdinen maiztasunari lotuak, eta zeri eta indarkeria horren arrazoiei, izaerari, larritasunari eta ondorioei buruz ikerketak sustatzea, halaber, indarkeria hau saihestu eta bere ondorioak konpontzeko ezarritako neurrien eragingarritasunari buruz, estatistika horiek argitaratu egin behar dira eta baita ikerketen ondorioak ere" (UNDEVW, 4. artikulua (k)).

Horrek berekin ekarri beharko luke aitortzea emakumeen aurkako indarkeria funtsezko gizarte-mekanismoetako bat dela, eta mekanismo horien bidez, emakumeak gizonen mendeko egoerara behartzen direla sexu gisa, eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeriarekin lotutako datuak behar bezala ikertu eta biltzeko beharrezkoa dela indarkeria horren egileak eta biktimak sexuan oinarritzea, eta ez "genero identitatea"n.

Sexuaren arabera bereizitako datuak "sexuaren araberako sailkapen gurutzatua aplikatzen zaien datuak dira, eta horrela informazio bereizia aurkezten dute gizonentzat eta emakumeentzat, neskentzat eta mutilentzat. Sexuaren arabera bereizitako datuek gizartearen alderdi bakoitzean gizonen eta emakumeen, nesken eta mutilen rola, egoera errealak eta baldintza orokorrak islatzen dituzte... Datuak sexuaren arabera bereizita ez daudenean, zailagoa da desberdintasun errealak eta potentzialak identifikatzea" (UN Women, Gender Equality Glossary).

d) Estatuak zera egin behar dute: "Gizarte- joera eta -arazoen inguruan Nazio Batuen sistemaren erakunde eta organoek egindako azterketetan, esaterako, munduko gizarte egoerari buruzko aldizkako txostenetan, emakumearen aurkako indarkeriaren joeren azterketa barneratzea" (UNDEVW, 5. artikulua (d)). Horrek estatuei eskatu beharko lieke berma dezatela emakumeen eta nesken aurkako indarkeriaren egileen eta biktimen identitateak sexuaren arabera erregistratzen direla, erakunde publiko guztien aldetik, polizia, estatuko fiskalak, eta auzitegiak barne, eta ez "genero identitatea"ren arabera.

e) Estatuak zera egin behar dute: "Nazio-legerian, zigor zehapenak, zehapen zibilak, lan arlokoak eta administraziokoak ezarri, indarkeria jasaten duten emakumeek izan dituzten kalteak zigortu eta konpontzeko, hauei justiziaren mekanismoetara heltzeko laguntza eman behar zaie eta, nazio-legegintzan xedatutakoaren arabera, jasan izan duten kalteagatik ordainketa bidezko eta eragingarria egin; gainera, Estatuak emakumeak jakinaren gainean jarri behar dituzte emakumeek dituzten eskubideei buruz, hain zuzen ere, mekanismo horien bitartez ordainketa eskatzeko" (UNDEVW, 4. artikulua (d)).

Horren barruan sartu beharko litzateke emakumeek eta neskek beren aurkako indarkeria-ekintzak egin dituzten pertsonen sexua zehaztasunez deskribatzeko duten eskubidea aitortzea. Polizia, estatuko fiskalak eta auzitegiak bezalako erakunde publikoek ez diete indarkeriaren biktimei beren

erasotzaileak "genero identitatea"ren arabera deskribatzeko betebeharra ezarri behar, beren sexuaren arabera beharrean.

## 9. Artikulua

### Haurraren eskubideak babesteko beharra berretsiz

- a) "Gizarte-ongizateko erakunde pribatu nahiz publikoek, auzitegiek, administrazio-agintariek edo organo legegileek hurrei dagokienez hartzen dituzten neurri guztietan, haurraren interesak lehentasun osoa izango du" (UNCRC, 3(1) artikulua). Estatuak onartu behar dute haurren "generoa berresleitzeko" esku-hartze medikoek, pubertaroa zapaltzeko hormonak erabiliz, hormonak ordezkatzuz eta kirurgia eginez, ez dutela haurraren interes gorena zaintzen. Garapen maila dela eta, haurra ez da gai esku-hartze horiei buruzko adostasun osoa, askea eta informatua emateko, zeintzuek epe luzera, ondorio kaltegarri iraunkorrak izateko arriskua handia baitakarte, antzutasuna kasu. Estatuak haurrengan esku-hartze mediko horiek egitea debekatu beharko lukete.
- b) Estatuak onartu behar dute medikamentuen eta kirurgiaren bidez haurren "generoa berresleitzera" bideratutako esku-hartze medikoak azaleratzen ari diren praktika kaltegarriak direla, Emakumearen aurkako diskriminazio-modu guztiak ezabatzeari buruzko Batzordearen 31.a eta Haurren Eskubideen Batzordeak praktika kaltegarriei buruz egindako 18.a biltzen dituen Gomendio Orokor Batuaren V. zatian definitzen diren bezala.
- c) Estatuak praktika horiei buruzko datuak biltzeko eta monitorizatzeko prozesuak ezarri behar dituzte, eta horiek ezabatzeko legeak aldarrikatu eta ezarri. Estatuak xedapenek jaso behar dute praktika horiek jasaten dituzten haurren legezko babesa eta zaintza egokia, eta horiek konpentsatzeko eta konpontzeko prestasuna.
- d) "Umeak ahalik eta osasun-mailarik onena izateko eta medikuntza- eta errehabilitazio-zerbitzuak izateko eskubidea" aitortu behar dute estatuak (UNCRC, 24. artikulua). Horrek barne hartu behar du haurraren gorputz osasuntsua medikazioaren edo kirurgiaren erabileraren aurka babestea, "generoaren berresleipena" tratamendua egiteko.
- e) Estatuak "ziurtatu egingo dute haurrak babestu eta zaintzen dituzten erakunde eta zerbitzuek ezarritako arauak betetzen dituztela, batez ere segurtasun, osasun, langileen kopuru eta gaitasunaren aldetik, eta gainbegiraketari dagokionez" (UNCRC, 3. artikulua). Horrek barne hartu beharko luke "genero identitatea"ren kontzeptua sustatzen duten erakundeek, edo esperientzia klinikorik edo haur-psikologiako aurrekaririk ez duten taldeek, haurrentzako osasun-zerbitzuetan eraginik ez izatea.
- f) "Haurrak beren gaitasunen eta garapenaren araberrako heziketa eta orientabidea jasoko ditu Hitzarmen honetan jasotzen diren eskubideak erabili ahal izan dituzan. Lan hori gurasoek, senide, tutore edota legezko ordezkariak egingo dute. Estatuak arduradun horien erantzukizun, eskubide eta betebeharrak errespetatuko ditu" (UNCRC, 5. artikulua). Estatuak debekatu egin behar diete estatuko agentzietan, erakunde publiko eta pribatuetan, medikuei eta haurren ongizateko bestelako profesionalen edozein ekintza har dezaten, baldin eta ekintza horien helburua bada gurasoak beren seme-alaben "genero identitateak" aldatzera bideratutako esku-hartze medikoak edo bestelakoak egitea behartzea.
- g) Estatuak zera aitortu behar dute: "ume orok du hezkuntzarako eskubidea" (UNCRC, 28. artikulua). Horrek barnean hartu beharko luke haurrak giza biologiarik eta ugalketari buruz

materialki beharrezkoak diren ikasketa-planak garatzeko duen eskubidea, eta hainbat sexu-orientaziotako pertsonen giza eskubideei buruzko informazioa ere jaso beharko luke, haurraren gaitasunaren bilakaera eta garapen psikologikorako etapak kontuan hartuta.

h) Estatuak bermatu behar dute giza biologiari eta ugalketari buruzko material zehatza sartzen dela irakasleen trebakuntzan eta etengabeko garapen profesionaleko programetan, bai eta sexu-orientazio desberdinetako pertsonen giza eskubideei buruzko informazioa ere, sexu-estereotipoen eta homofobiaren desafioa barne.

i) Estatu kideek "onartzen dute hezkuntzak haurraren nortasuna eta gaitasun teoriko eta praktikoak garatzeko izan behar duela. Horretarako haurrari giza eskubideenganako errespetua irakatsi eta herrien arteko bakea, tolerantzia eta adiskidetasuna bultzatuko dira" (UNCRC, 29. artikulua).

j) Horrek neurriak jaso beharko lituzke, erakundeek ez dezaten estatuko funtsik jaso hezkuntza-erakundeetan sexu-estereotipoak eta "genero identitatea"ren kontzeptua sustatzeko, hori emakumeen eta nesken aurkako diskriminazioa sustatzea baita.

k) Estatu kideek "haurra babestuko dute bere ongizatearen edozein alderditarako kaltegarriak diren gainerako esplotazio modu guztietatik" (UNCRC, 36. artikulua). Horrek lege-neurri eraginkor eta egokiak jaso beharko lituzke, abolitzeko: neskengan eta mutilengan sexu-rolen estereotipoak ezartzen dituzten praktika tradizional eta azaleratu berriak; haurrak "okerreko gorputzean jai" gisa diagnostikatu eta tratatzea, sexu-rolen estereotipo tradizionalekin bat ez datozenean; sexu berak erakartzen dituen gazteak genero-disforia pairatzaile gisa identifikatzea; eta umeengan egiten diren parte-hartze medikoak, zeintzuek esterilizazioa edo beste kalte iraunkor batzuk eragin baititzakete.